

ERANDIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAREN ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

I. TITULUA: Sarrera

1. artikulua: Zioen azalpena
2. artikulua: Hezkuntza-oinarriak
3. artikulua: Aplikazio-eremua

II. TITULUA: Kudeaketa-organoak

4. artikulua: Zuzendaritza
5. artikulua: Irakasleen klaustroa
6. artikulua: Mintegiak

III. TITULUA: Irakasleei dagozkien alderdiak

7. artikulua: Irakasleak
8. artikulua: Entzunaldi eta kontzertuetara bertaratzea
9. artikulua: Eskolarik gabeko ordutegia

IV. TITULUA: Ikasleei dagozkien alderdiak

10. artikulua: Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
11. artikulua: Ikastea
12. artikulua: Eskoletara ez joatea
13. artikulua: Ebaluazioa
14. artikulua: Kontzertuak, entzunaldiak eta jarduera bereziak

V. TITULUA: Instalazioak eta musika-tresnak erabiltzea

15. artikulua: Instalazioak erabiltzeko baimena
16. artikulua: Instalazioak erabiltzea
17. artikulua: Musika-tresnak erabiltzeko baimena

VI. TITULUA: Araubide administratiboa

18. artikulua: Ikasleak matrikulatzeko eta onartzeko arauak
19. artikulua: Ikasleak Musika Eskolan matrikulatzea
20. artikulua: Ikasle berriak matrikulatzea
21. artikulua: Irakaslez, musika-tresnaz eta taldez aldatzeko eskaera
22. artikulua: Eszedentziak
23. artikulua: Ordaindu gabeko ordainagiriak
24. artikulua: Epez kanpoko matrikulak

25. artikulua: Matrikulen zenbatekoa

I. TITULUA: SARRERA

1. artikulua: Zioen azalpena

Araudi honek hainbat aspektu arautzea ahalbidetzen du: batetik, Erandioko Udal Musika Eskolaren antolakuntza- eta jarduera-alderdiak; bestetik, ikasleen eskubide eta betebeharrak, indarrean den araudia eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko eta Erandioko Udaleko arauak jarraikiz.

2. artikulua: Hezkuntza-oinarriak

Erandioko Musika Eskolak kalitatezko musika-irakaskuntza eskaintzen die ikasle guztiei (4 urtetik hasita, adin-mugarik gabe). Irakaskuntza euren jakin-minei eta/edo beharrei irekia da, eta beranduago, ikasketa arautuetara sartzeko aukera ematen du. Halaber, eskolak lanean dihardu udalerrian musika-jarduera sustatzeko, eta, horretarako, beste elkarteekin batera egiten du lan.

3. artikulua: Aplikazio-eremua

Araudi honen aplikazio-eremua Erandioko Udal Musika Eskola da, Erandio Elizateko Udaleko Hezkuntza sailaren mende dena. Araudiaren aplikazioak honako hauei eragiten die:

Irakasle guztiak, euren lan-egoera dena delakoa izanda ere, baita ikasleak, horien gurasoak edo legezko tutoreak (adin txikiko edo legezko zaintzapean dauden ikasleen kasuan), ikasleak eskolan matrikulatzen diren unetik baja eman arte.

Udal Musika Eskolan onartua izateak Araudi hau onartzea dakar berekin.

Musika Eskolan matrikula egiten duten ikasle guztiei araudi hau kontsultatzeko aukera emango zaio, baita eskatzen duen pertsona orori ere; horretarako, araudia jendaurrean erakutsiko da, iragarki-oholean.

II. TITULUA: KUDEAKETA-ORGANOAK

4. artikulua: Zuzendaria

Zuzendaria da Ikastetxearen kudeaketa orokorraren eta funtzionamenduaren arduraduna.

Eskolak Zuzendaritzaren aldaketa definitzeko eta sistematizatzeko duen dokumentuaren arabera beteko da zuzendariaren lanpostua.

Hona hemen Zuzendariaren funtzioak:

- a) Ikastetxeko ordezkari izatea ekitaldi eta jarduera akademikoetan.
- b) Ikastetxeko jarduera guztiak zuzendu eta koordinatzea, Klaustroaren eskumenei kalterik egin gabe.
- c) Indarrean dauden legeak eta bestelako xedapenak betetzea eta betearaztea.
- d) Ikastetxera atxikitako irakasleen buru izatea.
- e) Eskolaren baliabide materialak kudeatzea.
- f) Eskolako egiaztagiria eta agiri ofizialak ikus-onestea.
- g) Ekitaldi eta jarduera akademikoak nahiz irakasleen Klaustroko saioak deitzea eta horien mahaiburu izatea.
- h) Eskolak inguruko beste ikastetxe eta kultura-erakundeekin duen harremana sustatzea.
- i) Eskolako jarduera eta egoeraren urteko memoria agintaritza eskudunari helaraztea.
- j) Eskolan elkarbizitza sustatzea, gatazkak konpontzeko bitartekaritza bermatzea eta ikasleei dagozkien zuzentze-neurriak ezartzea, indarrean dauden xedapenen eta Barne Araudiaren arabera.
- k) Beste Administrazio Publikoen diru-laguntzak tramitatzea eta finantzazio-iturri osagarri izan daitezkeen inguruan informazioa ematea.
- l) Eskolak ematea eta irakaskuntza-alorreko jarduerak zuzentzea, bere ardurapean uzten den espezialitatean.
- m) Ikastetxearen funtzionamendua dela eta, ikasleek eta beren legezko tutoreek (adin txikiko ikasleen edo legezko zaintzapean dauden ikasleen kasuan) eginiko kexuei erantzutea, eta Eskola Komunitateko kideek aurkezten dituzten iradokizun eta kexuei ere erantzutea.

5. artikulua: Irakasleen klaustroa

Irakasleen ordezkari-arganoa da. Musika Eskolako irakasle guztiak osatuko dute. Klaustroko lehendakaria Ikastetxeko Zuzendaria izango da, eta, ez badago, berak aukeratutako irakasle bereziak egingo du lan hori.

Klaustroa hilean behin bilduko da gutxienez; hala ere, Zuzendariak nahi duenean egin dezake biltzeko deialdia, beharrezkotzat joko balu edo klaustroaren herenak hala eskatuko balu. Haiek azalduko dituzte euren ustez landu beharrekoak diren gaiak, eta aztergaietan sartuko dira. Azken kasu horretan, eskaera egin eta hurrengo 15 eguneko epearen barruan egingo da bilera.

Klaustroa ikasturte hasieran bilduko da, ikasturtean ikastetxeko antolakuntza onartzeko eta Urteko Plana ontzat emateko. Ikasturte amaieran ere bilduko da, ikasturtearen garapenaren inguruko txostena egiteko (urteko memorian eranste) eta hurrengo ikasturteko Urteko Plana definitzeko.

Klaustroko kide guztiak bertaratu behar dira bileretan. Kideren bat bertaratu ezean, behar bezala egiaztatu beharko du.

Hona hemen klaustroaren funtzioak:

- a) Proposamenak egitea eta Ikastetxeko Curriculum Proiektua eta Urteko Plana osatzea eta onartzea.
- b) Ikasturteko Urteko Memoria ezagutzea eta oniritzia ematea.
- c) Ikasleen ebaluazioaren lanari buruzko irizpideak zehaztea eta lantzea.
- d) Eskola-errendimendua aztertzea eta ebaluatzea.
- e) Ikasleen orientabide- eta tutoretza-funtzioak planifikatu eta zuzentzea.
- f) Esperimentazio eta ikerketa pedagogikoaren esparruan ekimenak bultzatzea, Ikastetxean garatzeko.
- g) Eskola-orduak eta ikasgela eta ekipamenduen banaketa zehazteko irizpideak ematea.
- h) Ikasleei eta irakaskuntzari buruzko zalantzazko kasuei konponbidea ematea.

6- Zuzendaria izango da Klaustroetan buru, eta Idazkari-lanak, berriz, Klaustroko kide batek beteko ditu (hiruhileko bakoitzean bat, alfabetoaren ordena jarraituz). Idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du. Aktak honako hauek jasoko ditu: non eta noiz egin den bilera, eztabaidatu diren puntu nagusiak eta adostu diren edukiak.

6. artikulua: Mintegiak

Dagozkien espezialitate eta irakasgaiak, eta euren eskumenen eremuak eta indarrean dauden arauak agintzen dizkioten jarduerak antolatzeke eta garatzeko oinarrizko organoak dira Mintegiak. Ikastetxeko irakasle guztiek osatzen dituzte Mintegiak.

Mintegiko bilerak hilean behin egingo dira gutxienez, eta kideak nahitaez bertaratu beharko dira. Kideren bat bertaratu ezean, behar bezala egiaztatu beharko du.

Hona hemen Erandioko Musika Eskolako Mintegiak:

- Haizezkoak: klarineta, flauta, saxofoia eta tronpeta.
- Polifonikoak: akordeoia, gitarra, pianoa.
- Harizkoak: biolina, biolontxelo.
- Teoriko-praktikoa: musika-hizkuntza, abesbatza.
- Hainbat joerakoak: bateria, baxua, gitarra elektrikoa, musika modernoko taldeak.
- Bertakoak: trikitixa, panderoa...

Musika-tresna polifonikoen/teoriko-praktikoen kasuan, elkarlan berezirik egon ezean, banaka bilduko dira.

Hona hemen Mintegien funtzioak:

- a) Ikasturtea hasi aurretik, Mintegia osatzen duten irakasgai eta espezialitateen Programazio Didaktikoa antolatzea eta gainbegiratzea.

- b) Jarritako helburuen araberako material didaktiko orientagarria hautatzea.
- c) Ikasleei programazioari buruzko informazioa jakinaraztea, bereziki helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak.
- d) Metodologia didaktikoa eguneratua mantentzea, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko jardueren garapena sustatzea.
- d) Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan agertzen diren zailtasunak gainditzeko konponbideak aztertu eta proposatzea.
- f) Ikasle zein irakasleentzako jarduerak antolatzea, eta horietarako behar dena Zuzendaritzari azaltzea, horren arabera jardun dezan.
- g) Mintegiari dagozkion ordutegiaren inguruko proposamenak egitea.
- h) Beste Mintegiekin batera jarduerak proposatu, antolatu eta gauzatzea.
- i) Urteko Plana osatzeko parte hartzea.

III. TITULUA: IRAKASLEEI DAGOZKIEN ALDERDIAK

7. artikulua: Irakasleak

Irakasleak dagokion irakaskuntza-jarduera garatzen du, Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren, Antolamendu eta Jarduera Araudiaren, Urteko Planaren eta bere kontratuan zehaztutako lan-baldintzen arabera.

Hauexek dira irakasleen zereginak:

- a) Bere eskola-orduak puntualki ematea.
- b) Eskoletan ordena, diziiplina eta aprobetxamendua mantentzea.
- c) Irakaslearen Koadernoan betetzea honako datuekin: ikasleei dagozkien datuak, helburuak, landutako edukiak, ebaluazio jarraituaren emaitzak, eskolara joateak, irakaskuntza-ikaskuntzari loturiko alderdiak (zailtasunak, erraztasunak, interesa, lan-erritmoa, ...).
- d) Irakaskuntza- eta ikaskuntza- prozesu globala ebaluatzea.
- e) Ikasleei begira orientazio pertsonala egitea.
- f) Puntualtasuna, diziiplina eta eskolara ez joateak kontrolatzea, eta, behar izanez gero, guraso edo tutoreei berri ematea.
- g) Ikasturtearen hasieran, ikasleei eta legezko tutoreei (adin txikiko ikasleen edo legezko zaintzapean dauden ikasleen kasuan) berri ematea helburu, programa, ebaluaziorako irizpide eta etxeko lana bideratzeko oinarrizko arauen inguruan, lan hori probetxuzkoa izan dadin.
- h) Hiruhilean edo lauhilean behin (zehaztutakoaren arabera), txostena prestatu eta ikasle bakoitzari ematea. Irakaskuntza-prozesuari buruz ikaslearentzat eta bere legezko tutorearentzat (adin txikiko ikasleen edo legezko zaintzapean dauden ikasleen kasuan)

interesgarria den beste edozein informazio jasoko da txosten horretan, Ikastetxearen araudia jarraikiz.

- i) Gurasoei eta/edo tutoreei zein ikasleei arreta emateko ordutegiak ezartzea.
- j) Euren lanarekin zerikusia duen txostenak eskatuz gero, entregatzea.
- k) Klaustroetako bileretan, ebaluazio-saioetan eta, deitzen badiete, euren lanarekin zerikusia duen beste edozein bileratan egotea.
- l) Ikasturtean behin, gutxienez, euren musika-tresnaren entzunaldi bat antolatzea.
- m) Autonomia Erkidego mailan, musika-ekitaldietan parte hartzea.
- n) Autonomia Erkidegoko beste Musika Eskolekin aldian-aldian harremanetan egotea eta elkarrekin lan egitea.

8. artikulua: Entzunaldi eta kontzertuetara bertaratzea

Musika-tresnen entzunaldiak

Entzunaldian aurkezten den musika-tresnarekin lotura duen irakaslea bertan egongo da.

Izaera orokorreko kontzertuak

1- Ikasleek ez badute izaera orokorreko kontzertuetan parte hartzen, irakasleak ohiko moduan emango ditu eskolak; horrek ez du esan nahi ezin duenik joan eskola-orduetan egon litezkeen entzunaldi eta kontzertuetara, zati baterako nahiz guztirako.

2- Ikasleek izaera orokorreko kontzertuetan parte hartzen badute, horiek hasi baino ordubete lehenago amaituko dute eskola.

3- Kontzertua berariaz prestatu behar bada eta irakasleak aipatu baino denbora gehiago behar badu, ikasleei jakinaraziko die.

Musika Eskolak beharrezkotzat jotzen badu, eskolak bertan behera gera daitezke.

9. artikulua: Eskolarik gabeko ordutegia

Eskolarik ez dagoen garaian, honakoak egingo dira:

- 1- Klaustroaren eta Mintegien bilerak
- 2- Elkarrizketak guraso edo tutoreekin eta ikasleekin
- 3- Informazio- edo prestakuntza-ekintzak
- 4- Urteko Planean aurreikusitako lantaldeetara edo jardueretara bertaratzea
- 5- Irakaslanekin lotutako lanak

IV. TITULUA: IKASLEEI DAGOKIEN ALDERDIAK

10. artikulua: Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berak dituzte.

Ikasleen eskubideak

- 1- Beren kontzientzia-askatasuna eta ideologia erlijioso, etiko eta moralak errespetatuak izateko eskubidea, eta baita beren intimitatea ere alderdi horiei dagokienean.
- 2- Beren zintzotasun fisikoa eta morala eta norberaren duintasuna errespetatzeko eskubidea, eta inoiz ere ez dituzte jasoko tratu iraingarriak, ez eta tratu txar fisiko edo moralak eragiten dituzten santzioak.
- 3- Orientabideak jasotzeko eskubidea, dituzten gaitasun, ezagutza eta ahalmenen arabera askatasun osoz alor horietan beren erabakiak har ditzaten.
- 4- Ebaluaziorako irizpideak eta ikasturte bakoitzean gainditu behar dituzten gutxieneko helburuak ezagutzeko eskubidea.
- 5- Beren eskola-errendimendua objektibotasun-irizpideen arabera baloratua izateko eskubidea.
- 6- Zehaztutako ordutegi akademikoa errespetatua izateko eskubidea, eta, irakaskuntza jarduera eteten bada, alde aurretik jakiteko eskubidea.
- 7- Kalitateko irakaskuntza jasotzeko eskubidea eta helburu hori lortzeko ikastetxean dauden baliabide materialak erabiltzeko eskubidea.
- 8- Edozein ekimen, iradokizun eta erreklamazio egiteko eskubidea, horretarako iradokizun-kutxa erabiliz edota tutoreekin edo zuzendariarekin bilduz.
- 9- Bere ikasketen eboluzioaren inguruan aldi-aldi informazioa jasotzeko eskubidea.

Ikasleen betebeharrak

- 1- Hezkuntza Komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna eta ideologia erlijioso, etiko eta moralak errespetatzea, eta baita guztien duintasuna, zuzentasuna eta intimitatea ere.
- 2- Ikastetxeko araudia onartzea eta betetzea.
- 3- Tasak ordainduta izatea.
- 4- Helbide-aldaketen eta beste datu pertsonalen berri ematea.
- 5- Ikastetxeko altzariak eta instalazioak behar bezala errespetatu eta erabiltzea, eta horiek bidegabe erabiltzearen ondorioz sortutako kalteak konpontzea eta horien aurrean erantzutea.
- 6- Eskolara joaten ez badira, hori egiaztatzea, eta, ahal bada, irakasleei aurretik jakinaraztea. Kasu horietan ez dira eskolak errekuperatuko.

11. artikulua: Ikastea

Ikastea ikasleen oinarrizko betebeharra da, eta honako zeregin zehatzak dakartza berekin:

- 1- Matrikulatuta dauden irakasgaien eskoletara puntualki joatea, baita parte hartzen duten taldeen entseguetara ere, eta zehaztutako ordutegiak errespetatzea.
- 2- Bakoitzak bere irakasgaia ikasteko behar duen dedikazioa eta denbora ematea, eta, horretarako, gelan landutako eskola-edukiak etxeko lanaren bidez indartzea eta irakasleek eskatutako lanak egitea.

12. artikulua: Eskoletara ez joatea

- 1.- Ikasleek eskoletara joateko betebeharra dute. Joaterik ez badute, egiaztatu egin beharko dute. Musika Eskolara posta elektronikoa bidali beharko dute, ahal bada, alde zurretik.
- 2.- Klaustroak eskolara ez joateak baloratuko ditu, eta, horien ondorioz, ikasleak matrikula berritzeko aukera gal dezake.
- 4.- 16 urte arteko ikasleen kasuan, gurasoek edo tutoreek egiaztatu beharko dute eskolara joan ez izana.
- 6.- Eskolaz kanpoko jarduerengatik eskoletara ez joatea ez dago egiaztatuta.

13. artikulua: Ebaluazioa

- 1- Ikastetxearen Curriculum Proiektuan jasotzen dira ebaluazio-irizpideak.
- 2- Ikasturtearen hasieran, irakasleak irakatsiko diren oinarrizko helburu eta edukien eta ebaluazio-irizpideen berri emango die ikasleei eta beren legezko tutoreei (adin txikiko ikasleen edo legezko zaintzapean dauden ikasleen kasuan).
- 3- Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa banan-banakoa eta jarraitua izango da.
- 4- Ebaluazioa lauhilean behin egingo da, eta informazioa idatziz entregatuko da.
- 5- Ebaluazio-txostenak honela emango dira: 14 urte baino gutxiagoko ikasleen kasuan, gurasoei edo tutoreari.
- 14-16 bitarteko ikasleen kasuan, ikasleei emango zaie.
- 16 urte baino gehiagoko ikasleen kasuan, ez da txostenik emango.
- 6- Musika-hizkuntzako irakasleek erabakiko dute ikasle batek Musika Hizkuntzako ikasturtea errepikatu behar duen ala ez.

14. artikulua: Kontzertuak, entzunaldiak eta jarduera bereziak

1. Kontzertuak, musika-jarduerak eta entzunaldiak eskola-jardueratzat hartzen dira, eta irakasleak zehaztutako egunetan antolatuko dira.
Ekitaldi horiek direla eta, irakasleek eskolak aldatzea edo partzialki edo guztiz bertan behera uztea erabaki dezakete, izan musika-tresnako, musika-hizkuntzako edo taldeko eskola. Kasu horietan, ez dago eskolak errekuperatzeko betebeharririk.
2. Aldaketa eta/edo bertan behera uzte horiek alde zurretik jakinaraziko zaizkie ikasleei.
3. Musika Eskolak antolatutako ekitaldi horietan parte hartu beharko dute nahitaez parte hartu behar duten ikasleek, baita irakasleek hautatutako ikasleek ere.
4. Jarduera berezizat hartuko da eskola-orduetatik kanpo egindako jarduera oro, ikastetxeak antolatua bada eta helburu didaktiko eta pedagogiko argiak baditu.
 - a. Ikastetxeak jarduera horietako bat egiteko diru nahikorik ez badu, ikasleei jarduera zehatz hori gauzatzeko kopuru bat eska diezaieke.

- b. Udalerritik kanpo ateratzea eskatzen duen jarduera berezien kasuan, beharrezkoa izango da adin txikiko ikasleen guraso edo legezko tutoreen baimena, idatziz.
5. Ikasle batek irakasleak esandako ekitaldietan parte hartzeari behin eta berriro uko egiten badio, Musika Eskolak ikasle horren plaza libre utziko du.

V.TITULUA: INSTALAZIOAK ETA MUSIKA-TRESNAK ERABILTZEA

15. artikulua: Instalazioak erabiltzeko baimena

Ikasgelak ikasleei laga daitezke, ikasteko eta/edo taldean entseguak egiteko, baldin eta Eskolaren eskola-jarduera eragozten ez badu.

Horretarako, interesdunek irakasleei aurretik jakinaraziko diote, eta jarduera egiteko behar duten materiala duen ikasgela bat eskatuko dute Ikastetxeko idazkaritzan.

16. artikulua: Erabiltzea

Irakasleen ordutegiak ezarrita daudenean, idazkaritzak jakinaraziko die ikasleei zein ikasgela egokitu zaien, eta zein ordutan.

Ikasgelak goizez edo arratsaldean laga daitezke, baldin eta irakasleek erabili behar ez badituzte.

Ikasteko egokitutako ordutegian zehar, ikasleak bere gain hartuko du erabiltzen duen materiala egoera onean mantentzeko ardura.

17. artikulua: Musika-tresnak erabiltzeko baimena

Ikasketak hasi berri dituzten ikasleen kasuan, Eskolak euren eskura jarriko du eskatutako musika-tresna, mailegatzeko musika-tresnen zerrendatik.

Ikasle batek musika-tresna bat maileguan hartzeko eskatzean, irakasleak maileguaren gehieneko iraupena jakinaraziko dio. Epe hori amaitu ostean ikasleak Musika Eskolan ikasketak egiten jarraitu nahi badu, musika-tresna erosi beharko du. Maileguaren iraupena gehienez ere ikasturte batekoa izango da.

Higiene-arazoak direla medio, ikasleek ezingo dute haizezko musika-tresnarik maileguan hartu.

Mailegatutako musika-tresnak Ikastetxeko instalazioetan egon behar dira uneoro. Ikastetxetik kanpo erabili behar izanez gero, irakasleak Zuzendaritzari jakinaraziko dio, azken horrek onespina eman dezan.

Era berean, musika-tresna nagusiko zein bigarreneko ikasleek aukera izango dute musika-tresna mailegatzeko, goian aipatutako baldintzetan.

VI. TITULUA: ARAUBIDE ADMINISTRATIBOA

18. artikulua: Ikasleak matrikulatzeko eta eskolan onartzeko arauak

Musika Eskolako ikasle guztiak irakaskuntza nagusian zein taldekoan matrikulatuko dira, baldin eta aukeratutako musika-tresnak eta Eskolako antolakuntza-gaitasunak ahalbidetzen badu.

19. artikulua: Ikasleak Musika Eskolan matrikulatzea

1- Matrikulak automatikoki berriztatuko dira Ikastetxeak aurretik ezarritako epeen barruan.

2- Epe horiek aldeztatik erakusgai egongo dira, eta horien inguruan informazioa emango da.

3- Ikasle batek matrikula egitea edo berritzea ahazten badu, Musika Eskolak ez du horren ardura hartuko. Eskolak ez die ikasleei deitu behar matrikula-epea jakinarazteko, matrikula berritzea berresteko edo Ikastetxean baja emateko.

5- Ez badira ordainagiriak ordaintzen, ikasleak plaza galduko du. Baja eman dela jakinarazi gabe eskoletara joateak ez du dagozkion kuotak ordaintzea salbuesten.

5- Bajak posta elektronikoki bidez jakinarazi behar zaizkio Ikastetxeari. Baja ematen bada, matrikulak emandako eskubide guztiak galduko ditu ikasleak.

6- II. mailara sartzen diren ikasleek hiru musika-tresna aukeratu behar dituzte, hautatutako lehen musika tresna egokitzen ez bazaie beste aukerak izateko. Inprimaki hori ikastetxeak entregatuko du Ikastetxeko idazkaritzan.

Musika-tresnak Musika Eskolak ezarritako irizpideen arabera esleituko dira.

1. aukerako musika-tresnan bazarik egongo balitz, 2. edo 3. aukerakoan matrikulatutako ikasleei jakinaraziko zaie, oraindik ere 1. aukerara interesa duten jakiteko.

7- Ikasleek jasotako ikaskuntzetatik ez badute nabarmen probetxurik ateratzen eta ez badute interesik erakusten, eta ez badute ikasleek esandako jardueretan parte hartzen, matrikula berritzeko eskubidea gal dezakete, honako prozedura honen bidez:

Irakasleak ikaslearen inguruko txosten bat idatziko du eta Zuzendaritzari helaraziko dio. Ondoren, zuzendaritzak ikaslea eta haren guraso edo legezko tutoreari hitzordua emango die, egoera azaldu eta euren argumentu eta alegazioak entzute aldera. Hiruhileko bat igaro ostean hobekuntzarik egon ezean, beste hitzordu bat emango die interesdunei, eta hurrengo ikasturtean matrikula berritzeko aukera galdu dutela jakinaraziko die.

20. artikulua: Ikasle berriak matrikulatzea

1- Ikastetxean sartzeko eskaera Idazkaritzan edota Erandioko Udaleko HAZ bulegoetan aurkeztu beharko da.

2- Matrikula-epeak aldeztatik erakusgai egongo dira, eta horien inguruan informazioa emango da.

3- Eskaera aurkezteak ez dakar, inolaz ere, ikaslea automatikoki onartua izatea.

4- Plazak matrikula-epea amaitzean esleituko dira, honako irizpideak erabiliz: erroldatzea, adina eta zozketa, azken hori irakasgai batean eskaintza baino eskari gehiago badago.

5- Behin matrikula-epea amaituta plaza eskuratzen bada, gehienez ere astebeteko epean berretsiko zaio ikasleari, SMS bidez edo telefonoz.

6- Plaza-faltagatik ezin badira eskaerak aintzat hartu, erreserba-zerrenda bat sortuko da, eta, bajak emanaz gero, zerrenda horretara joko da horiek betetzeko.

7- Eskolak epez kanpoko matrikulazioak onartzeko eskubidea izango du, baldin eta eskatutako taldeak edo musika-tresnak plaza libreak baditu.

21. artikulua: Irakaslez, musika-tresnaz eta taldez aldatzeko eskaera

Irakaslez aldatzea

Irakaslez aldatzeko eskaerak idatziz eta behar bezala arrazoituz egin beharko dira, eta Ikastetxeko Zuzendaritzari helarazi beharko zaizkio.

Musika-tresna aldatu nahi izanez gero, matrikula egitean egin beharko da eskaera, eta eskatutako musika-tresnan plaza libreak daudenean esleituko dira.

MUSIKA HIZKUNTZA irakasgaien taldez aldatu nahi izanez gero, ikasturtea hasi eta bi aste baino lehen egin beharko da eskaera, idatziz eta behar bezala arrazoituz.

22. artikulua: Eszedentziak

Ikasleek eszedentzia eska dezakete gaixotasun-, ikasketa- edo lan-kausak direla medio, baldin eta ikasturtea baino gehiago irauten ez badu. Eskaera idatziz egin beharko da.

23. artikulua: Ordainagiriak ordaintzea

Ikasturte amaieran ikasleek oraindik ez badituzte ordainagiriak ordaindu, ezingo dute hurrengo ikasturteko matrikula egin aurreko ordainagiriak ordaindu arte.

24. artikulua: Epez kanpoko matrikulatzeak

Ikasleak onartzea

Behin urria pasata, ez da matrikularik egingo Musika Hizkuntzako taldeetan, honako salbuespen honekin: Erandiora helbidea aldatzea, beste musika-eskola batean matrikulatuta egotea eta dagokion irakasgaien plaza libreak egotea. Kasu horretan, bigarren puntuari zehaztutako baldintzen pean onar daiteke ikaslea eskolan.

Ikasturtean zehar musika-tresnen matrikulazioak egingo dira, beti ere plaza libreak badaude.

25. artikulua: Matrikulen zenbatekoa

Matrikula ikasturtearen lehen hiruhilekoan egiten bada (irailetik abendura), matrikularen % 100 ordaindu beharko da.

Urtarriletik aurrera egindako matrikulen zenbatekoa ikasturtea amaitu aurretik geratzen diren hilabetei dagokion zatia izango da.